

- Sisto (Sixto) ?

Bi izenordeko deiturarik gabe datoz Iraca(s)le, eta Esperimentaçale., ez dugu zulatu nor diren?. Aipatzen den barbero bakarra Cosefo, (?) bat da, ez dugu haren aipamenik iñon aurkitu.

Eskuidazkiaren iluntasun, oker, huts ta beste ezinirakurriez

Erromeroaz bildu errezetak, aski argi baldin badira, eskuidazkiaren 57. orrialdetik goiti gauzak lausotzen dihoaz, diareea sendotzeko erremedioen artean berak **xarauce, xerauce** izeneko "jarabe"ak aipatzen ditu denak oraindik hortarako erabil ditezkenak, baina bat "jarabe de murtones" zer den ez dakigu? Bitxi amoztigaren olioari (?) katalan izena **maister** ematen bait dio.

Begietako minaren erremedio idazten digu "charadonaren hura" Zer da Xaradona? Ala frantseskada bat "chardon", Zuberotan denek **garde** deitzen dutena gatik egia da gardea antiseptikoa, eta antalgikoa dela.

Esaldi ilun bat dago bere grafiaz: "ahuez babaca saldoco bat", **babaka** ardi ahuntz mokordoa delako ahuez (?), **ahüntz** ote?.

Diarrearen erremedioak aipatzean "plantaia laurdenerena by ancren idorra", agian plantaina laurdenerena **bi ankren** (!) idorra.

Errezeten balioaz

Süge larruaren erabilera lepra eta pozoinen aurka ez zaigu ziurra irudi, gero zauritan eta arantza idokitzeko saiok egin behar eta ikertu, keratinak zerbait egin dezakenez.

Lasterreria (diareea) beti arrosa edo irasagar urekin eta plantaina tisanekin senda diteke, eta errezetak balio du.

Azazkalen mozteko garaiaz diona sineste hutsa da, baita haginaren sendatzeko musker edo sugandila errautsa ere, hala nola erorteko minarentzat sator erre errautsa.

Begietako minarentzat, apio hurak edo ardoak balio du beti; oillarraren gibelak sorgin sendagailu dirudi.

Belarririkako minarentzat, erramüa, **erreñotza** egoki da antiseptiko eta antalgiko baita. Kanelaren bertuteez ez dakigu ezer.

Erorteko minaren sendatzeko, irudimena nagusi da, edozein gauzak balio du: hartzaren gibela, sator erre errautsak, behorraren esneak, oillarraren gibelak, baina bitxiarena Avicena-k dion txisa eradateka ezkerreko zapatan.

Xixarientzat, arhamenta (menta) erremedio ezaguna da olio-ozpin nahasketaz ez dakigu ezer.

Andere diti minentzat liño-aziz egin enplastua baliagarri zaigu, ahuntz babaka hori bitxiago; baina serioago babaren irina, eta arraultzeaz egin enplastua. Baba, berriz hemen agertzeak, "ahuez babaca saldoco bat" beste modu batera irakurtzera garamatzi, alegia "ahuntz-baba (baba mota bat) saldako bat"

Hona grafia ederreko kopiatzaile ezaxol honen huts gehienak, ea norbaitek hobeki irakurtzen duenez? Gauza bitxia da nola zuberotar testu bakarra den **xarauze** "jarabe" esateko erabiltzen duena, den ez du aspaldi kente hortako hitza **xarabiko** "laudanum" jarebea esateko erabiltzen zela.

ALTHABEGOITY-REN ZIBEROKO BOTANIKA (XIX. m.koa)**LANTAREEN JAKITATEA**

Bai bada jakitate hori; bena geroago txipitzenago ari da. Hitzen erdiak ez dira ezagütürrik, orai, berrogei urtez peko jenteez. Izan da Eüskaldüna, hogeitahamar urte hontan laborari zaharren entzün lantaren izenak bildü düttiana eta ez ahazteko ezkiribüz hartü düttiana. Egün, arren, ez üzteko galtzera, hasten da izen horien herrokatzen **Eüskaldün** kazetan, otoizten dü, horren nausia, honhar dezan bihotzez oberendatzen deron lan txipi hau. Hitz horiek oro zaharren ahotik elkirik dira. Biltzaleak eztü mereximentürrik, biltzeko pazentzia baizik, eta, lagün huneki(n), frantses hitzen edireit-tekoa baizik. Uste dü badela orano haboro biltzeko, nahi bada baden hanitx ere galdürrik.

Eüskaldüna ohartzale da: zerk hun edo gaitz egin deron eta halaz izentatü dütü lantareak; batak: **Xixari belarra, Odol belarra, Arrestelü belarra**. Besteak beren itxüretarik: **Axeri büztana, Idi mihia, Gatü bixarra**; zombait beren lilitzeko sasutik: **Bedats lilia, Domesantore lilia**. Eta orano edireiten diren lekütik: **Komentü lilia, Andere mahatsa**.

Jinkoak lantare bakotxari eman dü bere poterea sendotzeko edo eritzeko. Minaren kantün ezarri dü orotan belar sendozalea; ezagütü behar beita salbü Jinkoaren dohaiña.

HASTE

Absynthe.- **Xixari belarra, Axintxo**

Hola deitürrik zeren horreki egin tisana edo horrekin egin ardoak libratzen beitü xixaririk. Ezagütü dü gizon zahar bat, eri, estomakin pezü handi bat; Barberak etsitürrik. Aizoko ostalersak beitzakin sendon maite ziala **absinta edaria**, hil gabe azken plazer bat egin behar z(i)ola, edanerazi zeron godalet bat. Eriak ondotik urtuki zien pelota bezalako **xixari** ate bat. Goizan oliatüa, arratsen sendo zen.

Aigremoine.- **Lapatiña xehea**

Hori da Damnatuak manatzen di(a)n **tisana** geia, **erorie-tan**.

Ail.- **Baratxuria**

Beste ordüz haurrak arristirik askariten ziren **ogi** belar (sic) **baratxuristatürrik** jatez. Hatsa memento bat gaisto, bena sekulan **xixaririk**. Bürüak handi eta beti gose. Orai aldiz? Üsü txar eta denak xixari.

Lehenago, orano, **saihets püntak** zirenean, hers' baratxuri ixter bat zapatüz, orai potikaideko paper piperstatüz.

Androseme.- **Orkatz ostoa**

Ostoa oliun trenpa eta **zauri zahar** baten gainen hers': sendo.

Bouillon blanc.- **Builublan** (sic)

Liliaren tisana **marrantaren**, oihalean iratzirik.

Bourrache.- **Murruña**

Osto eta liliak tisana hona egiten dü **marrantan** eta eztü **zahartüan**.

Bouton d'or.- **Apiaza**

Soroko eta alorreko lehen belar berdea da bedatsean lilia ürre kolore, barnea argi berniza bezala. Lehen belar berdea delakoz arresa lotzen zaio lehiarekin. Mahastekatü ondoan, erxeak barnetik oro min jarten dira, jan ondoan. Ordüan arresak **bedajo** dira erran nahi beita zainhil, begi handi eli bat zabaltürrik, nigarrez üdüri, pareteak joiten ikusten ezpalire bezala. Belar berde horrek pozoatürrik dira. Eman ordüan kontre pozotako zahí hur. Apiazak, idor ondoan galtzen dü pozoa.

Champignons non comestibles.- **Leherondoak**

Dohakabea düanak jateko, ezagützen dü sei edo zortzi edo hamar oren бүрүкө. Бүрүкө min, бүрүнгүрү, sabeleko min, goiti eta behera. Barbera jiten den artean, egin ahalak oro egin, **errendatzeko** bi eri züntzür zolala heltüz, edo gingilla lüma batez gillikatzez; edo orano taza bat edo biga olio epele gaintitzez. Ezpada hola libratzen pürga bat har; edo ezin bada pürga labamentü batetan har. Nolazpait libratü ondun dateke balius kafea edo barberaren erremedioak.

Figuier.- **Pikotzea**

Marrüka pika. Piko zankoak emaiten di(a)n eznearekin busta egün zonbaitez eta adio **marrüka**.

Houblon.- **Biera belarra**

Zeren hortarik eta garagar бүрнарзitik egiten den edari freskazale hori. Zerrailüetan gora doen lantare bat da. Osto aspre bat mahatsarena üdüri. Frütia, behatzaren lodigoako eta lüzegoako lili holi bildü bat da, ürrietan zohi. Horen liliaren tisana (Hogei grama litrakal), hon da **ezin lijestitüz** denean, **axal minetan**.

Joubarbe des toits.- Artichaut sauvage: **Beharri belarra**

Zeren zonbaitek uste dien haren sapak sendotzen di(a)la **beharriko** mina.

Osto bat gainti batetik axala kentürrik eta pausatürrik, piko baten gaiñen, **odola üküratzen** dü, halaber **hikak mardotzen**. Pomadak eginik: hirur laurdenak urin berriez eta laurden bat belarraren sapaz, ezitzen dütü **emuridak**.

Laitue cultivée.- **Intsalada xuria**

Egarria hausten eta **lo** eginarazten dü.

Lavanda.- **Banda**

Horren püntak (h)ur heraki(a)n tea bezala memento bat etxekiz, egiten dü **bürüko minaren** tisana hun bat, doian edanez; püntak errauztürrik **ürzain** eginarazten die. Arropen artean belarra etxekiz begiratzen tie **zerenetarik**.

Lierre terrestre.- Herbe à la Saint Jean: **Erle belarra**

Zeren hümea errezebitü behar di(a)n khobaiña horren ürriñ bortitzarekin berekatzen den. Balios da ere horrekin egin tisana **eztül zaharrentako**.

Lin.- **Lia**

Goizan gaintitzea kulerata bat azi hurean egon denak, **gogorreria** sendotzen dü. Azia ehorik balliatzen da kataplasma egiteko, hur heraki(a)n. Hur hortan herakitürrik bazien aitzineti lau бүрү "pavot", **sabeleko mina** ezitzen dü horrekin egin kataplasmak.

Linaire bâtarde.- **Igtei belarra**

Zeren igiteiareki(n) egin **zauriak** horreki(n) beitziren hersten.

Lys blanc.- **Jondane Johane lilia**

Zonbaitek horen zaiña deitzen die Andere Dona Maria zaiña. Horren zaiñak zapatürrik xilarazten dütü **hanpiloak**. Horren lilia egün zonbaitez etxeki di(a)n aigardentak edo olioak sendorazten dütü **kolpe** eta **pikoak**.

Mache (sic) ou doucette.- **Ardi mihia**

Horren jateak ezitzen, freskatzen eta xahatzen dü **barnea**, intsaladan.

Mélisse.- **Meliza**

Lantare baliosa da **estomakeko** minetan, **bürüngürü ingoxerietan** eta bereziki **zaiñen ematzeko**. Edirelten da lür ütsaletan eta baratzetan. Biltzen da lantarea oro, lili denean, granerian idorrazten; bere ezti ürriña arra pizten zaio tea bezala egiten den tisanan (eripürü) bat edo biga litrakal). Goiz oroz gomendatürrik da edatea jente zahar gizener, **apoplexiaren** ohiltzeko, bai eta nekez formatzen diren persona gazter.

Menthe poivrée des jardins.- **Ahamenta**

Lantaren (sic) baliosenatarik hori ere. Horren gozotik dira egiten pastilla bortitzak. Meliza bezala adelatürrik den tisanak azkartzen dü **estomaka**, dijestionia eginarazten, **ikarak** eta **barne aize(a)k** ohiltzen, **begitarte** eri izanak zoharditzen, **errenderia ta imbeak** iganarazten, **kolikak** ezitzen, haurrer **xixariak** ehaiten, **ühänder eznea** igaran-arazten, ahamenta ostoz belarra (bürüko belarra) hertzez бүрүкө mina anpletzen.

Miel.- **Eztia**

Heben aipatzen dü erremedi, lili hanitxen kokotsetik eginik beita erleek hürrüpatzez. Sükrea beno hanitzez hobe da, erien **tisanentako**.

Bera jateko bortizko da: golarrita bat hurtürrik litra laurden batetan **azkartzen** dü, erdi pürgatzen, **estomakeko** minkoilak zohiarazten, begi **laparzüak** xahatzen eta argitzen, hur horrekin bustatzez.

Ezti hurean egosarazi ondoan nahar osto zonbait **züntzür** minak eta eztüla üküratzen hur horrekin bero gargarisatzen bada.

Axalean agertzen bada **küsküilü** edo **hanpilo**, xilatzen edo barreatzen dira; hersten bada hula egiten den engoin batez:

- erdia ezti
- beste erdia irin,

hur güti bat nahasirik, lodisko izan dadin.

Zahartü nahi denak ardoaren ordari edanen dü **Hydromel** deitzen den ardu eztiz egina. Egiten da: oren batez egosaraztez hirur laurden hur eta laurden bat ezti, gahün gaiña kentzen delarik; gero barrikot garbi bat hortarik abantzü beta. Bospasei egünen бүрүкө hortan hasten da "herakitzen" egiazko ardoa bezala. Utzi hogei bat egün üdan herakitzera, beste ogei bat egün pausatzera. Gero petik ardo berria bezala xahüla idoki argi, eta eginik da. Aldi(a)n güti edan beza sendoak, eta eriek ere eztie hügüntzen.

Moutarde.- Mustarda

Bada beltza eta xuria. Beltzak egiten dū sinapisma eta xuriaren azitik goizan gaintitzez sendotzen da **gogorreria**.

Nerprun, Bourdaïne.- Oilloabarra

Vosges deitzen den kartielean laboraria **pürgatzen** da goizan zopan hartüz, 25 bihika beltz horren frütütik.

Noyer.- Intzaurtze

Horren ostoarekin egin tisanak sendotzen dū **minhoia** (skrofüla) (?).

Oignon.- Uinhua

Jinkoak gure baratzetan nasaiki puzarazten di(a)n lantare arrunt horrez, jatez eta edaneraztez harren salda eztiitzen dū **grabela** azkartzen **estomaka**. Gordirik zapa eta herx **erradura** berri bat ezta kuskültzen.

Ortie.- Asüna

Gora jo(a)ilearen tisanak ohiltzen dütü bularretako eta gibelerraitako **emur soberakinak**. Uda ela negü, zaiñekin egin tisana orano hobe da. Usü jaten di(a)nak asün pünta egosirik, espinaka bezala prestatürrik, **odol gastatütik** libratüko da. Italianoek usü jaten die asün zopa. **Errematismo** di(a)nak zeha edo freta bitza minak egün oroz, asün fresk ahürreta batekin, zaletüko da.

Pariétaire.- Parietera (sic)

Jiten da mürü zaharretan, tisanak aisatzen dū **hur xuriaren** egitea.

Patience.- Ahagoa

Horren zaiñarekin egin tisana baliatzen da **axaleko** erraitekoetan.

Pavot.- Loazlea, paboa

Ezta edaten, gaitz beita, bena horrekin egosi hurarekin hartzen da labamentü, bai eta egiten liarekin kataplasma pausatzeko **sabeleko minan** (sic) gaiñen.

Pensée.- Papantzea

Tisanak sendotzen **darta** eta haurren **urterminak**.

Persil.- Perezilla

Zaiñaren tisanak **hur xuria** aisatzen.

Pervenche.- Berenga

Horrekin egosi hura hon da **begiko minen**, **potrinaiden** tisana eta amañoen **eznearen hausteko** kanaberarekin nahasirik.

Petite (sic) houx.- Garratza, garatzaina

Zeren horren zaiñarekin egin tisana hun beita **grabelai-diaren**, **hidropisiaren** eta **eskrofulan**.

Plantain.- Plantaiña

Haren egoskinarekin bustatzez edo müstükatzez **begiko mina** eztiitzen da. Horren saparekin hertstez, **piko** bat berala sendotzen. Tinkatzez emaiten di(a)n sapa edatez, barrea-tzen dütü barneko **emur gaistoak**.

Primevère.- Bedats lilia

Hola deitürrik, zeren den bedats hastekoa. Zerrailü ondoetan eta arrolletan edireiten da; gerezi ostoaoren handigoako

dü osto berde bat, üxür eta lür errasean hedaillo; lilia hoili, ürrindün, bost hortzetako tüta baten barnetik abiatzen. Kneipp erretorak dio, horrekin egin tisanatik edanez, taza bat egün oroz, zombait denboraz, eztiitzen eta iragaiten diela **ezür jüntetako errematismo eta gota**.

Prunelier.- Elhorri beltza, Basa arhana

Liliareki(n) egin tisanak **pürgatzen** dü ezteki, **estomaka azkartzen**. Horren früta zohitüarekin egiten da aigardent hoberenetarik hirur departamendutan.

Prunier.- Arantzea

Nola egin mozkin hortarik laborariak? Aran marlatüak erosten dira kario. Atze erresumetarik jiten da Frantzian eskaz dena. Zertako Eüskaldün laborariak ez liru egin berak. Ezta gaitz. Hortakotz behar da üken Ageneko herriko arantzea. Horren ezürra erein edo sindikataren bidez hantik enpeltea ekarerez. (Balizateke hasteko Ordiñarben). Basa arantze saldo bat enpelta ta hirur urteren bürüko emanen die aran larri briolet kolore lüzan bat. Ordünkoz eginik izan behar lükie txotxezko kereta aldia bat, labe bortan igaraiten ahal den heiñean, behar dena labe zolaren garnitzeko. Ontsa hontü direnean aranak, bata bestearen gaiñen ezarri gabe, heda kereta horietan gaiñen. Ogia aski ererik den püntüan idok labetik eta berala ezar ordaritako kereta horiek bere frütekin labe zolan. Biharamenean, idoki keretak eta ützü labe peaz gora aranak: arintzen hasi dira. Jinkoak barnen ezarri hur sükratia galtzen hasi da, sükrea lodiago baratü da.

Ützülü ondoan aranak, berriz labea beroarazten da lehen aldi(a)n beno haboroxeago, ogiak idoki zirenean beno eta berriz ezarten dira aranak labean bere keretetan. Biharamenean berriz idoki keretak, ützü aranak, hirurgerren aldikotz ezar keretekin aranak, labea bigarren aldi(a)n beno beroxeago helerazten delarik. Bi oren egon direnekoz bero hortan, idok aranak marlatürrik dira.

Ordüan plega bero-beroak direno kexa, hatsik hartzen ez di(a)n baten zolan. Kexaren betatzekoa balin bada, tinka ezteki aranak artetarik; ontsa tapa kexa eta bi urteez ez tira gas-tatüko, ez mintüko, ümitarzünik gabe begiratzen badira selaurean. Hebenko aran txarrak hola hola marla ahal ditake, bena mami güti eta ezür handi lükete.

Romarin.- Erremulea

Tisanak pizten dü **estomaka** flaküa eta dijestionea. Horreki(n) egosi den ardoak edanez hon da **ezür jüntetan** agitzen diren **errematismo** hilen.

Ronce.- Naharra

Horrekin egosi den ezti hurak ematen dü **züntzür mina** gargarisatzen, bai eta **beherako heia**.

Sapin.- Izeia

Horren püntako botoek egiten die tisana bat huna **gibellerrai** eta **gibeliminarentako**. Türmentina da aldiz haren ondoak emaiten di(a)n sapa edo urina askoa piko bat egiten zaienean.

Sauge.- Sobia

Erran zaharrak dio: Nola hiltzen ahal da
Sobia etxen diana.

Erran nahi beita baratze orotan ediren behar lükuela. Ezi horren püntekin (12 grama litrakal) eginik den tisana manatü-

rik da dijestione gaistoetan, **errenderietan**, **estomakeko** minetan, fiebre **tifoidetan**, jente flaküaren gaüazko izerdietan. Sobian egon den ardoa (60 g. litrakal) hun da helgaitzetan eta haurren aherian, bai eta zauri zaharren hetsteko.

Saule blanc des ruisseaux.- **Zümea**

Horien egongia, **zümatzea**.

Horren axalareki(n) egon hura edo ardoak sendotzen dü **sükarra**, kinkinak bezala kasik.

Sureau.- **Sagükitzea**

Ezinago balios den lantarea! Lilia idoraz beharrünea deneko: horreki(n) egiten da tisanan bat izertarazten diana eta holaz emearazten **izerdi sartü**, **errematismo**, **gota** eta **zaiñak**; mardorazten marranta eta eztüla; fitezegi sartü **zürrünpiak** berriz ekarten dütü. **Isapela** eta **ütsülarrüak** anpletzen dira horren hurarekin hersten badira.

Sei edo zortzi osto egosaraz 10 minütaz eta pürgatüko zira, oren bat askaltü beno lehen edatez. Zaiñarekin adelatü tisanak meharaziko dü hidropisia Sagükitzearen bihiak **pürgatzen** die eta pürifikatzen eztiki, berderik eta idortürik, ala eztiarekin nahasirik konfitüra gisa jaten balinbadira. Bigarren axalarekin egin tisanan gomendatürik da **hidropisian**.

Tanaisie armoise.- **Xixari jauzarazlea**

Karrota бүрүтүа bezalako lantare bat da, үррин bortitz batekin; liliak üdüri dü buttu bat. Likür bat egiten da **xixariak jauzerazten** dütiana. Ostoeiki egin kataplasma haurren sabelaren gaiñen etxekiz, ehaiten deitze xixariak.

Légende. A Erran zahar bat.

Amaberjinak bestordüz haitatü zi(a)n plantaina kiristi ororen minen sendotzeko. Ordian karrota bezala zain bat züan. Debría jelos, pikatü zeron zaiña: plantaina ximurtzen hasi; Ama Berjinak ezagütü nontik zen kolpea eta erran: Demonio beltza, ez hiz baliatüko; zain xehe saldo bat üngürünean puserazi zeron. Horra zertako di(a)n hainbeste zaiñ.

Poireau.- **Porrüa**

Horreki(n) egin kataplasma zohitzen dütü **hanpilu(a)k**. Tisana hon **grabelan**.

Prêle.- **Axeri büztana**

Aisa edireiten belar hori baliosenetarik da barneko eta kanpoko. Horrekin herakitü hurak min eta **zauri zaharrak** xahatzen ejertzen dütü, horrekin bustatzez edo hortan bustirik den oihal batez troxatzez. Horrekin egin tisanak xaharazten dü **estomaka**, **odolezko** crachatak (sic); emazteen odol **galtzeak** eta **grabela**; hur hori südürraz hürrüpatzez ükuzatzen dütü südürrazko odol galtzeak.

Tilleul.- **Tillültzea, Ezkia**

Mauleko "allées"ak holakoz lantatürik dira parte, arrabotü gibelekoak. Uztailan emaiten die zühain balios horiek lili hoili lüzan bat, **izertarazteko**, **zaiñen ematzeko**, **bürüko minentako**. Ala dela tisanan goxoa! Farmazian saltzen da lilla kario.

Vigne (Mahats).- **Aihena**

Süberteak edo melgak dira: Iskiribeta, korbua, klaberia, kamalao, erle mahatsa, bordelesa, xaxela, klamadana, tanata, duxeta, xoxo-mahatsa, basa mahatsa.

Hilabetez barurik mahats jateak sendotzen dü **gogorre-ria**.

Violette.- **Brioleta**

Horrekin egin tisanak eztitzen dü **eztüla** eta **kokalüxa** (oillar eztüla). Zaiñ xehekatik errenderazten dü.

Althabegoiti-ren jakituri eredu eta iturriak

Erran dugun moduan, Althabegoiti irakurtean errezeta batzu oso euskal joskera jatorrekoak dira, eta batzutan herriko ohiturak aipatzen ditu, Euskal Herrikoak dira batzu, nahiz ahoz, nahiz idatziz bilduak, gero frantsesetik itzultitakoak ere iturria salatzen dute.

Gure landarezaleari, ustegabeen, aipatzen ez duen eredu lumapetik ezkapatzen zaio, german izeneko Kneipp apez ospetsuaren izena emaiten baitu (Sebastian Kneipp 1821-1897, Bayerengo, Bavariako abade eta sendatzaile, fitoterapia eta hidroterapia maisu).

Geroxeago izen hori eman ez balu ere Basarana-z mintzo ez daki Patxaran-aren berri

"Horren frütü zohitüarekin egiten da aigardent hobere-netarik hirur departamendütan"

Eta hauek Frantzia Ekialdekoak dira, naski. Gainera hirugarren elementu gaineratzen da, Alsazia ez Lorrena hitzak aipatu gabe Alemanpean daudelako gehien bat "Vosges" hitza erabiltzen du eta **oiloabarraz** (oilakaranaz) dio

"Vosges deitzen den kartielean laboraria pürgatzen da goizan zopan hartüz, 25 bihika beltz horren frütütik"

Beharbada izentegia 1870-1895.an bildu badu eta, **Eskualdun ona** kazetan argitaratu, ordükotz ere, frantsesetik idatzitako botanika hura itzulia zen, eta hain zuzen sendabellarrez iharduten duena hau da.

Lamaignère -enean argitaratu bilduma, zatika kazetan emandakoarena da eta apez batek idatzitako liburuxka horrek erakusten du, jagoiti ez dela eliza gizonen belarrekin sendatzea debekatuko.

Althabegoiti-ren hizkuntza eredu eta iturriak

Betiko hizkuntza arazoetan sartzan gabela uste izango da, baina - inglesa bazter utzita eta mintzaira hortan ere - munduko beste hizkuntza guztiek mintzaira arazoak dauzkate, ez bakarrik idazki batean filologia buruhausteak daudelako hizketa heinen mugatzeko: likitsa, etxekoia, lagunartekoa ofiziolkoa, arrunta, standarda, eskolatua dotorea eta abar, baina frantsesetik eta gaztelaniatik bereiziki teknika eta jakintza gizonen "mordoilloa", beharrik gabe sartzan da; gero inglesaren joskera hitzelkartu tankera, hitz elkartuak ere mailegatzan baitira, harzalearen hizkuntza desorekatuz.

Althabegoiti-ren kasuan berak dionez zaharregandik hogeitahamar urteez (1870.a baino lehen hasita) landare hiztegia ikasten ibili zaigu. Nahiz gazte denbora Pettiarreko (Maule inguruko) herrian igaro, berak dio ibarraren leku hortan bederen hiztegia galtzen ari dela, baina duda batekin gaude, bera kanpora eskolatzerantz joan zen ezkerer, ez ote zen bera, hiztegi hori galduta geratu zena. Gure Basabürüko berri-emaitaren alderantziz astia izan du eta erdal hitz zerrenda begipean eduki zeren, oraindik ezagun diren izen batzuk ez baititu euskaraz emaiten, beti.

Hiztegian eta sendakuntza oharretan Pettiarreko (Zuberoa beheko) euskara darabila, jadanik Etxahun-en esku idazkietan 1827.an ikusten den berdina, fonetika berriarekin /ia/, // hestutzen delarik, guk Basabürüan eta züberera batuan darabilagun /a/ tartekatu dugu; gero hiztegiaren ere bereizkuntzak badirade hala nola **nahar** (P.)/**kapar** (B.), **Ahago** (P.)/**Lapatiña** (B.) eta abar.

Bere erdal eredu naski frantsesezkoa eta ez da latin ize-nik agertzen hor, beraz erabili duen arrotz idazkia bulgarizaziozkoa izan da. Joskera batzutan euskaldun jatorra izatea eta besteetan frantsesetz kutsatua erakusten digu, errezeta batzuk entzun ere dituela. Bere euskara züberera ona da, baina ulergarria halere. Gero **aditza aurrean** ipintzeak eta **geroaldi** itxura ematea ez da, ezinbestekoa, erdal kutsua dela esateko, beharbada egitura hori **agintzailearena** izan liteke bereiziki mota hortako idazkietan aholkuak ematen direla, eskaintzen direlako, bederen.

Althabegoiti - Harigile-ren konparaketa

Joanes Casenave-ren jakitatea zintetan grabatu egin da eta gero idazkintu ondoren, irakurria, hobetua, emendatua, baina ez du gure Santa Graztar eliz-gizonak hogeitahamar urteez bereiziki landare izen bildu, nahiz bere ehunahogei milaz goitiko züberotar hiztegiaren holako "hanitx" baden.

Aita Joanes-ek Basabürüko itxurapean ematen ditu belar izenak, baina batzutan bere herrian bakarrik erabiltzen diren izen batzuekin hala nola **Kükütza** (Sagükitzea), **nütena** (Tisana) eta holako batzu; lehenagoko murduilla edo arrapuren ondarrak? Aintziña Santa Grazin erabiltzen zuten beren hizketa bereziaren arrastro?

Ez dira naski landare berdinak agertzen, mendian baigau de Santa Grazi-n eta Joanes Casenave-ren bilduma askoz aberatsago da berak erabilka horiek egiten dituela, belar horiek baliatzen dituelako, oinarrizko sendagailü bezala mintxipietan. Aldiz Althabegoiti-ren ez dakigu berak hainbeste erabiltzen zituenez, oro. Bestalde Basabürüko etxenikasiak eta beste itzuliak zerbait antza badute naski, errezeta berdinak hatzemaiten direlako, hala nola belar horien bertuteak: **Xixari belar**, **Lapatiña xehe**, **Baratxuri Apobelar** (Buillublan?), **Murruiña**, **Apiaza** (Urdeen apioa), **Beharri belar**, **Labanda**, **Erle belar** eta abar, hots hobe da erraitea zer ez den aurkitzen Casenave-gan: naski Biera belarra, jatorrizko Frantzia Ekialdea berriz erakusten diguna, **Meliza**, **Parietera** (sic) **Paboa** (Loazlea) besteak oro badirade Basabürükoan baina enplegu gehiagorekin beti. Gero alde-rantziz Althabegoitik 49 landare baizik ez baitu ematen eta Casenave "Harigile" k 160.ez goiti, ikusten dugu ez zuela Althabegoiti-ri kezkatu beharrik bere lanetik ehun urte berantago, norbait, hirur bider gehiago eman zezakealako.

Halere biak erkatuz, ez da batean ez bestean aztikeriazko sendagailurik irakurtzen, bena bietan **Leheronddoak** aipatzean Aita Joanes, Althabegoiti erroretari buruzagi zaio, lehenak baitaki izen horrez aipatzen onddoa jan ditekela "lehertu" gabe, eta nahiz ez den onddo beltza bezain ona, ezkontanaiak betidanik jaten du eta beti bizirik dago; jan ondoren ez du sekulan sabeleko minik izan dionez. Behin besteekin nahasian jan nuen, ez du onddo beltzaren (Boletus Aedulisaren) gustu sendoa, jakina.

HUR EDATEAK ETA HUREZTATZEAK ZUBEROAN

Garrantzi handia daukatelarik herri-sendakuntzan, eta aspaldidanik ur-sendaketek beren zehaztasunak dituzte Zuberoan; hori, aitarekin ikasi genuen, ezen goi mendietara, bortüetara joaiten ginenean iturriak izendatzen baitzizkigun eta bakoitzaren bertuteak edo kalteak aipatzen, hotzegiak, purgazaleak eta abar: hori zen **ur edatea** barruko erraien minentzat, eta batzutan larruarentzat. **Hurstatzea** züberoeraz sendaketa-bainu hartzea da eta ez da naski leku berdinetan egiten beti. Euskaldun zaharrek erabiltzen zituzten urak aztertuak izan dira eta beren bertuteak ezaguturik eta horiek luzaroago aipatuko ditugu; baina, Europa guztian bezala, gure herrian urari, edozein urari osasungarri izateko bertuteak ematea gertatzen da eta bi adibide emango ditugu, gure lanaren beste lekuetan "jakileen" ahoetan agertuko direnak:

- 1.- Ihintzean ibiltzea tuberkulosis sendatzeko, bai "ihintzean ortütsik" diotenez"
- 2.- Guk bizitu dugun ohitura eta Santa Grazin "laminen ohitura" diotena, alegia urte guztiko osasunaren biltzeko, barurik Donibane goizean, errekarra iturrira joaitea aurpegi ta eskuen garbitzera (1941.ean egin dugu).

Euskal Herri guztian holako ohiturak daude (Kanboko Donibanetan, Nafarroako Ur-Goienak eta abar.).

Zuberoari mugatuz, ordea, uste dugu ez direla oraingoak sendaketa-uren erabiltzea, ez al da aurkitu harri-aroko aztarnategia, Gamereko Gesal-ütürri eta Lamina zilo deritzaioaren bitarte hortan. Gatza eman dezakean erreka uraren alboan. Idatzizko lekukotasunak Zuberoan, XVI. mendean hasten zaizkigu nahiz denborarekin zaharragoak agertu litezkean. Francisque Michel-i zor diogu, ur horien kondairaz egin zuen sintesia, euskaraz zatika emango duguna, gure lurraldeari mugatuz.

A. HAMASEIGARREN MENDEAN.

Beloy izeneko Erregeren abokatu, Tolosako kortean mendearen azken urteetan Biarnoko kondaira idazten hasia zelarik, Zuberoaz aipamen laburra egiten digu ta urak aipatzen:

"Biarnoz, Aragoiaz, bi Nafarroez, mugaturik dago Zuberoa (.)

Senda-iturri bizi nasai eta iraunkorrez ornitua dago, bata-oso ona dena **Leixtarreko Jondane Johane** (Donibane) delakoa da, sentorrale eta gaixo askok bisitatua; beste bat **Gesala**, **Gameren** gatz egiteko egokia litekean urez dena; eta beste hirur lekutan **Aloze**, **Itorrotze**, **Soroeta** herrietan edateko ureztatzeko ur beroak daude, Lapurdin Kanboko, ta Biarnon Aigas Caudas-ekoekin berdindu ditzakegunak".

Ez dugu etsitzen beste lekukotasunik, egun batean, aurkitzea, baina askotan gertatzen da jendeek ez dutela ulertzen zergatik behar lituzketen idatzitan ipiñi, egunero bizi dituztenak, betidanik eta betirako balira bezala, eta irudimena, gogoa berotzeko gai ez baitira ikusten. Bai, argi dago gure gaiarekin gutxi ikusteko duten "xikito" zaharretan, berdekeria bat esan gabe, jendeari gogoratzen zaiola, Leixtarreko herri-